


3. IDAZKI LABURRAK


Elkartearen ospakizun bereziak, gonbidapenak eta antzekoak kaleratzeko sortzen ditugu.

Mezu horiek herritarrei eta bazkideei iritsarazteko bide ugari erabil daitezke: ohiko posta, posta elektronikoa, txartelak, prentsa, ohar taula... Hori dela eta, idazki mota bakoitzak bere ezaugarriak izango ditu.

Atal honetan, mezu horiek nola osa daitezken ikusteko hainbat eredu eskainiko dizkizugu.



A. ZORIONTZEKO MEZUA



Getarian, 2003ko abenduaren 13an


Bazkide hori,

honen bitartez, ***Gabon zoriontsuak eta Urte Berri ona*** opa nahi dizkizugu.


Urtero bezala, aurten ere, gure elkarteak Erregetako loteriako betiko zenbakia erosi du, bazkide guztion artean banatzeko.

Zeurea eskuratu nahi baduzu, egoitzara etorri beharko duzu abenduaren 29a baino lehen.

Besterik gabe, ***ongi pasa***



B. GONBIDAPEN TXARTELA



Montetxio kalea 2 – 20800 ZARAUTZ – 943.000.000

25. URTEURRENA DELA ETA

Atsegin handiz gonbidatzen zaitugu datorren larunbatean,
azaroak 25, arratsaldeko 7etan ospatuko dugun ekitaldira.


Tokia: Bertiz hotela
(Nafarroa kalea 20, Zarautz)




C. ZOZKETA TXARTELA

	
GABONETAKO LOTERIA	
Agiri honen eramaileak _____ jokatu du	_____ euroko kopurua zenbakian
2002ko abenduaren 22an zozketatuko den Gabonetako Loterian.	
Saria jasotzeko azken eguna: 2003ko _____ ren _____ a.	
<small>ARIN KIROL ELKARTEA. Montetxio kalea 2 . 20800 Zarautz . Tel. 943 000 000</small>	

D. OHAR-TAULAKO DEIALDIA

	
EZOHIKO BATZARRA	
EGUNA: uztailak 4 , asteartea.	
TOKIA: Zumaiaiko Arin kirol elkarteko aretoa.	
ORDUA: 1. deialdia: 19:30ean. 2. deialdia: 20:00etan.	
AZTERGAIK edo GAI ZERRENDA	
1.- Aurreko akta irakurtzea eta onartzea.	
2.- 2004. urteko hauteskunde prozesuaren aurkezpena.	
3.- Lehendakariaren eta Zuzendaritza Batzordearen hautaketa.	
4.- Elkartearen diru eta kirol egoerari buruzko informazioa.	
5.- Eskariak eta galderak.	



E. PRENTSARAKOOHARRA



Urtero bezala, aurten ere, Arin elkarteak bere taldea animatzeko egun pasa antolatu du Bordelen. Partida datorren larunbatean izango da eta autobusean joan nahi duzuenok Arin elkartearen egoitzan edota Lau tabernan eman dezakezue izena, ostirala baino lehen. Oraingoan ere IRABAZLE!

F. MEZU ELEKTRONIKOA

Mezua prestatu: (gairik ez)

Fitxategia Editu Ikusi Txertatu Figurak Auzerak Tresnak Laguntza

Bidali Kontaktua ABG Ortografia Erantsi Segurtasuna Gorde

Nor:

Noti:

Gala:

Gorputzaren bestua Zabalera aldatzea

¶ A B I U

Egun on,

Telefonoz adostu genuen bezala, **honekin batera** doakizu datorren hileko ekitaldien zerrenda. Galdera edo zalantzarik izanez gero, deitu lasai.

Lagungarri izango zaizulakoan,

Laster arte.

ARIN KIROL ELKARTEKO IDAZKARIA